



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2018.05.

BILERA ZENBAKIA: 49

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Erkuden, Leire, Ruth, Jabi, Maider, Itziar

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPEN.
2. TOPAGUNEA
3. ESKOLA ETA GURASO TALDEAREN JARDUERAK
4. ARGAZKI SAIOA
5. ELIKAGAI BANKUA ETA BOLONDRESAK
6. BESTEAK. . .

#### 1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA:

Akta onartu da.

#### 2. TOPAKETA EGUNA

**Kartelak eta propaganda:** Ateratzen diren kartel guztietan denon ardura delako lema eta pertsonen marrazkia aterako da. Hitzakoei topaketaren berri emango zaie.

**Mikrometrajeak:** Kartela egina dago, lema batu, eta, data aldatu behar da. 7 inprimatuko dira: denda, taberna, jubilatua, medikua, arbelaitz, ludoteka, eskola. Aldizkariarekin batera ere zabalduko da.

**Emakumeen dinamizatzailerak:** Lotuta dago. Ahalduntzea, eta, taldea eratzeko erremintak lantzea planteatu da. Baita esan da, agian eguneroko gaiak planteatzea, eta, emakumeen beharren inguruan hitz egiteak emakume gehiago gertura ditzakeela.



**Gizon taldeak:** Gonbidapena luzatu zaie etor daitezen. Aurrerago konkretatuko zaie, eta, asistentzia konfirma dezaten eskatu.

**Emakume taldeak:** Batzuk falta dira oraindik gonbidapenak jasotzeko.

Egunera gonbidatuko zaie, baina bazkaria beraien kontu izango da. Aurrez baieztatu beharko dute etorriko diren edo ez.

**Izen ematea:** Lurdes eta Kaxintanen zerrendak jarriko dira. Zerrendan izena emandakoekin whatsapp taldea sortuko da.

**Zaintza:** 5 urtetik gorako haurrentzat izango da. Zaintza egingo dutenekin hitz egin behar da. Batzuekin hitz egin da baina konkretatu beharra dago. Mural bat egingo dute. Aurrez perfilatuko da mural hori. (Ekainak 22an)

#### **Bazkaria:**

- Paella egitea planteatzen da.
- Paella egiteaz arduratzen dena goizeko topaketetan egotea lehenetsiko da, interesgarria baita denek parte hartzea. Horretarako topaketen aurretik lanak aurreratu eta, ondoren denen artean lagundu beharko da. Beste aukera bat, aurrez saltsan zerbait prestatu eta egunean bertan berotzea izan daiteke.
- Paellan txerriak ez jartzea planteatu da, edo beste txiki bat egitea txerri gabe.
- Sukaldariari zenbat laguntzaile behar dituen galdetu behar zaio.
- Barra lotuta dago. Kafea eta edariak.
- Platerak: Udaletxeak dituenak eramango dira. Garbiketa egiteko garaian txandak egingo dira, pertsona gutxi lan guztia hartu ez dezaten.
- Bazkariaren prezioa. Tiketek 5 euro balioko dute. Diru hori sukaldariari emango zaio. Tiket batzuk Gizarte Zerbitzuetan egongo dira, joango direla baieztatu beharko dute hau jasotzen dutenek.
- Topaketa aurreko egunean mahaiak, eta, bestelakoak prestatuko uzteko kedada egingo da.

#### **Arratsaldea:**

- Herri kirolak lotu behar dira.
- Garai bateko jolasak egitea planteatu da.
- Dj-a lotuta dago.

### **3. GURASO ELKARTEAN ETA ESKOLAKO JARDUERAK**

Krisekin hitz egin eta aipatu zaio hautatutako saioak Udalaren esku izango direla. Orain Arremanitzekin kontaktuan ari dira eguna konkretatzeko. Sexunekoei ere deitu



zaie. Ea maiatzean egitea posible den.

Guraso elkarteko ordezkariari ere idatzi zaio eta eskolarekin harremanetan da data jarri ahala izateko.

#### **4. ARGAZKI SAIOA**

Argazki batzuen protagonistak zein izango diren argi dago. Beste argazki batzuetan testuingurua dago planteatuta, baina pertsonak ez daude argi. Kasu honetan, testuingurura bertaratu eta bertan dauden pertsonekin argazkia ateratzea proposatzen da (adb. Lurdesenean, Arbelaitzen, errepresaliatu eguna) Topaketetan argazkiak ateratzea planteatzen da.

#### **5. ELIKAGAI BANKUA ETA BOLONDRESAK**

Legorretako eredia jarraituz, Europako banaketa soilik egitea planteatzen da. Urtean 3 banaketa izaten dira. Banaketa, etorri bezain pronto egingo zaie erabiltzaileei. Banaketaren ardura boluntarioek hartuko dute beregain. (Oraingoz 4 bat daude) Legorretan jasotakoa eta behar denaren arteko lotura eiteko taula bat dute, eta, horretaz boluntario batek arduratu beharko du. Bestelako lana, gizarte zerbitzuetatik egingo da. Erabiltzaile berriak jaso, banatzaileekin egon, etab.

Orain arte garraiorako erabiltzen zen dirua behar handia duten familientzako erabiliko da. Beti ere beharrak agertzen joaten diren heinean. (60€ hilean)

Ekainean egingo da hurrengo banaketa, eta, ordurako aldaketen berri eman beharko zaie erabiltzaileei, eta, funtzionamendu berria nola izango den azaldu.

Oraingo lokaletik, dagoen janaria atera beharra dago. Ruth eta Leire joango dira ateratzera.

Mataderoa ikustera joan eta auzolana eginn beharra dago. Auzolan lantaldearekin hitz egin behar da. Sapaia jarri beharra dago eta ingurua txukundu. Maiatzak 19 goiza, edo 25-26 planteatu dira. Bestalde, janari asko batera helduko denez, agian ezin izango da takiletan sartu, horregatik takilez gain kutxa hermetikoetan sartu beharko da janaria.

#### **6. BESTEAK.**

**Oporrak bakean:** Haur Sahararren proiekturako dirua eskatzeko kanpaina bat dago Udalei eskatzen zaie. Haur bakoitzaren kostua 685 eurokoa da. Galdetu beste herri txikiei zein aukera egon daitezkeen ikusteko. (Legorreta)

**Tratu txarrak:** Herrian dauden tratu txar egoera guztiak ez dira gizarte zerbitzuetara




heltzen. Zerbitzu espezializatu bat izan zitekeen horretarako erantzun egokia, baina herri txikia izanik ez ditu Itsasondok horretarako baliabideak. Beasainen bada zerbitzu espezializatu bat, elkarte baten esku dena. Beraiekin kontaktuan jarri, eta, Berdinbidean Txikiak-ekin ere hitz egingo da, ikusteko zein aukera egon daitezken. Hitzaldi edo tailer bat egitea planteatzen da gaia jorrazteko.

**Errefuxiatuak:** Ekainak 20an errefuxiatuen eguna da. Ludotekan errefuxiatuen argazkia jartzea planteatzen da eta janari bilketarako mahai bat jartzea. Sos errefuxiatuak, eta, zapoarekin hitz egingo da, janari banaketarena nola egin zehazteko.

Bestalde Errefuxiatuei laguntzeko katiluak salgai jarriko dira. 77 katilu daude, ez daude ordainduta. Zerrendak jarri dira katilua nahi duten pertsonak izena eman dezaten. Ekainak 22an katiluak saltzeko eta zerrendan apuntatu diren pertsonen katiluak banatzeko mahai bat jarriko da.

Katiluen harira, lortutako dirua elkarreei banatzeko txeke entrega sinbolikoa egingo dute Legazpin, eta, gonbidatua izan da Itsasondo entrega horretara.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
<b>Topaketa eguna</b> Herri kirolekin hitz egin; behar dena zerrendatu eta Udalari eskaerak egin; Sukaldariarekin hitz egin, zaintza (parte hartzea, laguntzaileak, txerrikia); Tiketak eta kartela; aurreko eguneko eta egunean bertako bolondres lana antolatu; hitzarekin hitz egin, zaintzarena lotu.	2018.05 zehar	Jabi - Maider
Murala perfilatu	2018.06.22	Denok
<b>Hezkuntza jarduerak:</b> Eskola, guraso elkarte, aholkulariak koordinatu	2018.05.16	Gizarte Langilea - Maider
<b>Tratu txarrak:</b> Berdinbidean txikiak, eta, aholkularitza elkarrearekin hitz egin, zer egin erabaki.	2018.06.06	Gizarte Langilea
<b>Janari banaketa</b>		
Bolondresak antolatu	Maiatzean	Erkuden - Gizarte Langilea
Erabiltzaileekin hitz egin	Maiatzean	Gizarte Langilea
Janaria oraingo lokaletik atera	2018.05.25	Ruth - Leire
Auzolan taldearekin hitz egin	2018.06.06	Erkuden
<b>Oporrak bakean</b> Legorretarekin hitz egin eta zerbait erabaki.	2018.06.06	Erkuden
<b>Errefuxiatu eguna</b> Sos errefuxiatuak	2018.06.06	Ruth



eta Zaporeak-ekin hitz egin		
Katilu banaketa eta salmenta	2018.06.22	Ruth
Argazkia ludotekan	2018.06.20	Denok
<b>Egutegia:</b> Argazkiak egiteko egutegia lotu. Argi dauden pertsonekin hitz egin	Maiatza-Ekaina	?
<b>Azken 3 urtetako proiektu izarrak</b>	2016.05.29	Denok
<b>HURRENGO BILERA</b>		

2018ko ekainaren 6an egingo da 19:00etan Udaletxean:

Jorratuko diren gaiak:

1. Harrera eguna antolatu.
2. Topaketa
3. Eskola eta guraso taldearen jarduerak balorazioa.
4. Janari banaketa
5. Errefuxiatu eguna
6. Egutegia.